

MENTXAKAREN AITORPENA: Txikia, Basauriko ihesa

(...)

–Zer dakik Basauriko ihesari buruz? –galdetu dizu bat-batean.

Ustekabeko kolpea hartu duzu galderarekin, baina sentitutako zirrara barruan gordetzen saiatu zara ahal moduan. Eustakio Mendizabal “Txikia” ekarri dizu gogora.

“Non ote dabil?”.

* * *

1969ko irailean ezagutu nuen. Mauleko espartin-lantegi batean egiten zuen lan, eta igande pasa zebilen Baionan. Urte hasieran zeharkatu zuen muga, eta, ezagutu orduko, ondo moldatu ginen elkarrekin. Bizkor eta bakarti, nire gisa ez zitzaion gehiegi gustatzen errefuxiatuek Pannecau kalearen inguruan sortutako “txikiteo” giroa; izan ere, herriminak ito ez ezik, itxurarik gabeko konspirazio asko piztu izan ditu beti alkoholak. Inoiz gertatuko ez ziren mila plan borobil entzun ahal izaten zituzten polizia frantsesek bertan, baita espainiarrek ere, arreta gehiegirik jarri gabe.

Igande hartan bertan, ilunabarrean, hiriko harresien ondoko kaleetan ibili ginen Eustakio, Arin eta hirurok pasieran Pannecautik urruti. Iñakik eta Txikiak bertsotan jardun zuten ahal moduan. Eustakiori, baserrian jaioa izaki, eta Lazkaoko komentuan irakurritako liburuak bitarteko, garo-usaineko zertzelada bukolikoak nabarmentzen zitzaizkion aldian behin Euskal Herria ahotan hartzen zuenean. Garai hartan, ordea, sustrai sozio-ekonomiko eta politiko sakonekiko aldaketa kulturala ari zen gertatzen, eta Arestiren Harri eta Herri, Txillardegiren Huntaz eta Hartaz eta antzeko liburuak hasi ziren kaleratzen. Uhin berri horrek eragin nabarmena izan zuen Eustakioengan, hiri-ikuspegiak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen bere pentsamoldean. Gizon idealista zen, eta borondatea osoa jartzen zuen beti Euskal Herria askatzeko ideiaren aldeko borrokan.

Elkar ezagutu eta handik gutxira, Iraultza izeneko aldizkariz betetako motxilak bizkarrean, Hegoaldera jaitsi ginen Eustakio eta biok. Argitalpenak Txabi Etxabarrietaren biografia bat zekarren sarrera gisa, eta idazlan luze bat ondoren: K. de Zunbeltzek idatzitako “Hacia una estrategia revolucionaria vasca”. Ainhoatik barrena sartu ginen, eta, mendiz mendi, Dantxaritik Elizondora doan errepidera atera ginen. Arraina uretan bezala mugitzen zen inguru hartan Eustakio. Iparraldean berrosatu berria zen egitura militarren partaide ginen biok, Juan Jose Etxabe “Haundixe”, bere anaia Joakin eta Txomin Iturberekin batera. Uda eta udazken hartan Haundixek eta Agurtzane Arregi bere emazteak gobernatzen zuten kanpinean bildu ginen, Landetan, Baionatik hamabosten bat kilometrora.

MENTXAKAREN AITORPENA: Txikia, Basauriko ihesa

Abenduaren 7an, Eustakioren ohar bat iritsi zitzaidan Gipuzkoatik. Hitzordu baten berri ematen zidan: hurrengo egunean, arratsaldeko 5etan, Orioko Ongi Etorri tabernan. Bi metraileta eramane behar nituen. Oso denbora gutxi neukan muga-pausoa modu seguruan antolatzeko. Ez nekien zer egin, baina azkenean zuhurtziaren kontrako erabakia hartu nuen. Arriskutsua izan zitekeen, baina merezi zuen. Basauriko zenbait presok gau hartan bertan ihes egiteko asmoa zeukaten.

Eskatu bezala, bi metraileta hartu nituen; C.Z.25, txekoak biak ere, eta lau kargadore munizioz beteta. Lantegitik zekarten koipea kendu gabe zeukaten oraindik. Primeran zebiltzan. Agusi deitu nion ahalik lasterrena, Oriora joan beharra neukala esateko. Hurrengo egunerako jarri genuen hitzordua.

Igandea zen. Eguerdian ailegatu ginen Dantxarira Agusen mini-morrisean. Oso jende gutxi zebilen. Iparraldeko muga baino ehun bat metro lehenago, errepidearen sargune batean aparkatu genuen, jendarmerik ez zegoela ziurtatu eta gero. Trintxeraren azpian gorde nituen armak. Aparte utzi nituen badaezpada ere kargadoreak – barruko fardela nabarmen ez gelditzeko – eta alboko bide bat hartu genuen Hegoaldera. Handik bost bat minutura, Iparra eta Hegoaldea bereizten dituen ibaia ikusi genuen aldapa txiki bat igotakoan. Oinez zeharkatu nuen beste aldera eramaten zuen zubi txikia. Lurra txapazkoa, alantzez bildutako tutu metalikoak baranda gisa, ez zuen metro bat zabal. Uher zihoazen urak azpitik. Hogeitabat metro neukan tabernara, eta ahalik modurik naturalenean egin nuen aurrera. Inork ez zidan ezer esan.

Agusen zain egon nintzen, urduri, tabernan sartuta. Muga automobilez pasatu ondoren, ni nengoen lekuan agertu behar zuen auzo-bide batetik barrena. Bost minutu besterik ez zuen behar izan. Kafea eskatu zuen nik bezala, eta, tarte txiki bat bertan eman ondoren, bere automobilean sartu ginen. Armak arropen azpitik aterata, kargadorea jarri nion bati. Aldameneko poltsan gorde nuen, baina kremlera itxi gabe badaezpada ere. Errepide nagusi aldera jo genuen, bostehun metro inguru falta zitzaizkigun ailegatzeko, eta Guardia Zibilaren postutik hurbil pasatu behar genuen. Isilik, mantso, benta eta biltegien artean egin genuen aurrera, Elizondora eramaten zuen errepidera ailegatu arte. Eskua leihatilatik atera eta atzerako ispilua mugitu nuen, aduanatik gertu zeuden sardinazarrak zertan zebiltzan ikusteko. Istant batean galdu nituen begi bistatik. Oraindik ere urduri, azeleragailua gehiegi zantatu gabe jarraitu genuen, eta Urdazubiko bidegurutzera iritsi ginen berehala.

Elur handia zegoen bazterretan. Otsondoko mendatearen hegaletaraino ez genuen arazorik izan, baina gero eta elur gehiago ari

MENTXAKAREN AITORPENA: Txikia, Basauriko ihesa

zuen, eta gure mini-morrisak eragozpenak izan zituen aurrera egiteko. Aldian behin irrist egiten genuen. Agus, kilometro asko egindako gidaria, beste ibilgailu batzuek utzitako arrastoetatik ez ateratzen saiatu zen, baina gero eta lodiago zegoen zuria, eta errepidearen alde batetik bestera zebilen gure automobila. Zoruairen gainean kontrolik gabe, gurpilak zoratuta lurrian eutsi ezinean, orro egiten zuen motorrak. Errepidean iltzatuta begiak, bihotza taupaka eta erabateko tentsioan, elkarri ezer esan gabe joan ginen luzaro. Gora egin genuen, hala ere, poliki-poliki gelditu gabe, eta azkenean bide-seinale bat irakurri ahal izan genuen gure lasaitasunerako: "Elizondo 13 – Pamplona 71", eta handik metro gutxira, "Ochondo 602 m".

Mendatean bertan geunden. Elizondo, Oronoz, Narbarte eta – Berako errepidetik ez joatearren– Doneztebe, Ezkurra, Goizueta eta Hernani utzi genituen atzean, eta arratsaldeko laurak aldera ailegatu ginen Oriola. Ongi Etorri Tabernan sartutakoan, Eustakio Mendizabal "Txikia" eta Joakin Etxabe ikusi nituen barran.

Ordu batzuk geroago, aldapan gora igo ginen Basauritik espetxeraino automobilean sartuta. Kuartelaren aurretik pasatu ondoren, handik gertu, esparru militarren ertzean gelditu ginen, Firestone enpresak dauzkan instalakuntzen beste aldean. Inor ez zen jaitzi. Txikia, Joakin, Jabier Elorrieta "Poeta" eta laurok, armak eskuan, zain gelditu ginen barruan. Ilunpetan geunden, ezin gintuzten garitetatik ikusi, baina ordu laurdena besterik ez geneukan egin beharrekoak egiteko. Iheslarien zain geunden, baina alarma jota guardia mugitzen hasiz gero, 500 watioko fokuekin hornitutako dorre baten kontra egin behar genuen tiro etengabe. Inon agertzekotan, ate nagusian espero genituen guardiak; beraz, norabide horretan tiratzeko ere prest geunden, erasorik antolatzeke denborarik ez emateko. Erabat isilik zegoen gaua.

Beste bi automobil ere bazeuden inguruan: bata, muino baten atzean gordeta, kartzelaren atzeko atean; bestea, Galdakaoko apaizak Arrigorriagarako errepidearen ertzean utzi zuena. Ondarruko Luken eta Txomin Letamendia alde batetik, eta Gasteizko Lopez Aberasturi eta Peciña bestetik, urduri, pronto zeuden behar izanez gero.

Izerditan neuzkan eskuak; Winchester markako errifle erdiautomatiko bat neraman, eta indarrez heldu nion. Aurrez aurre neukan dorrea zeruaren urdin ilunaren azpian. Arreta eta erreflexu guztiak arman jarrita, ez nuen ezertan pentsatzen. Adiskideak automobilaren leihatilatik barrena ari ziren begira. Kanpoan ez zen ezer entzuten. Lurraren azpitik ere ez zetorren hotsik; 50 metro beheragotik ere ez zen ezer nabarmentzen; bederatzi tona lur eta harri kendu behar izan zituzten tunela zulatzeko, eta halakoxe astuna

MENTXAKAREN AITORPENA: Txikia, Basauriko ihesa

zen gau hartako isiltasuna ere. Armadaren kuarteleko garitatik hamar bat metrora irten behar zuten, baina denbora aurrera zihoan, eta ez zen inor ageri.

Ezin izan zuten egun hartan atera. Oztopo bat jarri zitzaien traban. Irten aurretik, azken tarte bat zulatu behar zuten, baina kartzelaren kanpoko harresiaren oinarriekin egin zuten topo, eta alde zurratik uste baino sakonagoa zen. Azpitik saiatu behar izan zuten, eta hortik atzerapena.

Ondoko egunetan, abenduaren 8an eta 9an, harremanetan jarri ahal izan ginen Eustakio eta biok barrukoekin, komunetako leiho-zirietan jarritako zapi batzuk erabilita. Arriskutsua iruditzen zitzaigun, hala ere, egunero espetxearen inguruan ibiltzea, eta Algortako pisu batean egokitu ginen presoek dena pronto izan arte.

Argia hiru aldiz piztu eta beste hiru aldiz itzali behar zuten noiz ekin behar zioten jakin genezan. Lau lagun gelditu ziren oharren zain gabe eta egunez. Ihesaldiaren prestaketa-lanetan hurbilen ibilitako jendea ziren denak: Luken, Txomin, Peciña eta Aberasturi. Basauriko espetxetik atera berriak.

Abenduaren hamaikan, korrika eta presaka irtetera zihoazela jakin zuten kanpoan zain zeudenek argi-seinaleen bitartez. Laguntza antolatzeke ia denborarik gabe, ez ziguten garaiz abisatu, eta Eustakio eta biok ezin izan genien armen babes eskaini. Gau hartan bertan egin zuten ihes nahiko itsumustuan. Inguruan zain zeuzkaten automobiletan sartu ziren batzuk, baina beste batzuek oinez egin behar izan zuten alde.

Hasierako nahaste-borrasteari etengabeko etxe-aldaketak gehitu zitzaizkion gero, eta azken orduan zenbait babesleku ere bertan behera utzi behar izan genituen; beraz, taldea sakabanatuta, erakundearen kontroletik kanpo gelditu ziren zenbait iheslari.

Eustakio eta biok, handik hamabost egunera, Mikel Solaun, Elgea Ibañez, Balentin Saez "Kapi", Josu Bilbao Fullaondo eta Manuel Calderon (preso komuna) jaso genituen azkenean, eta, bi gidarirekin batera, mendiz ailegatu ginen Iparraldera. Garai horretan bertan – Eguberrian, hain zuzen–, Antxon Jauregizuria, Jon Butron, Jose Maria Legarreta eta Esteban Hernandez (preso komuna, hau ere) Bilboko kargaontzi batean sartuta, Baionara iritsi ziren itsasoz, Txino Ayuda Patriótica Vasca-ko militantearengandik jasotako laguntzari esker. Gainerakoek –Manu Bengoetxea eta Joxe Felix Marina "Obrerito"– urtarrilean zeharkatu ahal izan zuten muga.

Mentxakaren aitorpena, 194-200 or.